

## Xedapen Orokorrak

### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

5971

ERABAKIA, 2009ko urriaren 6koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Erakunde Zentralaren egitura aldatu eta garatzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren estatutu sozialak onartzan dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan aitortzen diren ahalmenet baliatuz eta, batez ere, dekretu horren lehenengo xedapen gehigarrian honako hau adierazten dela kontuan hartuta: «arantzkaritza- eta kudeaketa-organoak eratz direnetik [...] langileen egitura eta antolamendua ezartzeko beharreko erabakiak hartu ahal izango dira».

Administrazio Kontseiluak «Osakidetzaren Erakunde Zentraleko egitura organikoaren maila orokorra ezartzen duen atariko urratsa» onartzeko 1997ko azaroaren 25ean hartutako Erabakia garatuz.

Erakunde Publikoaren jarduera hasi zenetik igarotako denbora eta egungo egoera kontuan hartuta, egoki jotzen da Erakunde Zentralaren egitura xede berrietara egokitzea.

Bestalde, egitura-eredu berria bideragarria dela eta legediari lotuta dagoela baloratu da.

Hortaz, adierazitako xedeak aintzat hartuz eta estatutu sozialen 8.5 artikuluak esleitzten dizkion eskumenen indarrez, Administrazio Kontseilu honek ondoko erabakia hartu du

ERABAKIA:

**Lehenengoa.**— Administrazio Kontseiluak 1997ko azaroaren 25ean hartutako Erabakia eta beronen edukia berresteia.

**Bigarrena.**— Aipatutako erabakia garatzeko eta Erakunde Zentralaren egitura aldatzeko (ikusi eranskina) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiar aurkeztutako proposamena onestea.

**Hirugarrena.**— Erabaki honen bidez onesten ez diren antolamendu-egiturak edo halakoak garatzeko agiriak indarrik gabe uzten dira.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

5971

ACUERDO de 6 de octubre de 2009, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por el que se modifica y desarrolla la Estructura de la Organización Central.

En virtud de las competencias atribuidas en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre por el que se aprueban los Estatutos sociales de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud y, en particular, de su Disposición Adicional Primera, a tenor de la cual: «a partir de la constitución de los órganos rectores y de gestión [...] podrán adoptarse los acuerdos que requiera la estructura y organización del personal».

En desarrollo del Acuerdo del Consejo de Administración de 25 de noviembre de 1997, por el que se aprueba el «paso preliminar que fije el nivel general» de la «Estructura Orgánica de la Organización Central del Ente Público».

Considerando que el tiempo transcurrido desde el inicio de actividad del Ente Público y la coyuntura del momento actual aconsejan una adaptación de la estructura de la Organización central a los nuevos objetivos.

Considerando que se ha valorado tanto la viabilidad como la legalidad del nuevo modelo de estructura.

Este Consejo de Administración, en el marco de los fines expuestos y en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 8.5 de los Estatutos Sociales, viene a adoptar el siguiente

ACUERDO:

**Primero.**— Ratificar el Acuerdo del Consejo de Administración de 25 de noviembre de 1997 y su contenido.

**Segundo.**— Aprobar la propuesta presentada por el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en desarrollo del Acuerdo enunciado y que se concreta en la estructura de la Organización central que se adjunta como anexo.

**Tercero.**— Queda sin vigencia cualquiera otra estructura organizativa que no sea la aprobada por el presente Acuerdo o documento que la desarrolle.

**Laugarrena.**— Erabaki honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina. Hala ere, zuzendariordetza guztiei jakinaraziko zaie erabakia, berau behar bezala ezagutarazi eta zabaltzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 6a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,  
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.


**Cuarto.**— El presente Acuerdo surtirá efectos a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV. No obstante, se comunicará a cada Subdirección a los efectos oportunos de conocimiento y divulgación.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2009.

El Presidente del Consejo de Administración  
de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,  
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

## ERANSKINA

### ERAKUNDE ZENTRALA



*ANEXO*

*ORGANIZACIÓN CENTRAL*

